



## 2017 URTERAKO HIRILUR ERREZIBOEN INFORMAZIOA

Hirilur errezihoak edo kontribuzio bezala ezagutzen ditugun errezihoen inguruko informazioa jasoko duzue, berehala. Informazio hori Aldundiak bidaliko dizue, eta 2017 urtean eragina izango du.

Abaltzisketako udalak dei honen bidez, informazio horren inguruko argibidea eman nahi dizue.

Dagoeneko badakizue, Abaltzisketako Udaleko errezihoa izan arren, horren kudeaketa, beste Udaletan bezala, Aldundiako Ogasunak egiten duela. Hirilur errezihoan zenbat ordainduko den jakiteko, hau da urteko kuota zenbatekoa den jakiteko bi aldagai hauek kontutan hartzen dira:

**Balio katastrala:** Zoruaren balioa eta bere gainean dagoen eraikinaren balioak osatzen dute. Balio hauek 2001. urtean eguneratu zituen Aldundiak eta 2016 urtean berriro ere balio hauek eguneratu dituzte. Eguneraketa honetan, etxe eta baserrien balioa igo egin da, eta hori da zuk jasoko duzun informazioa.

**Tipoa:** Tipoaren portzentaia Udalak erabakitzen du, eta tipo hau aplikatu eta urteko kuota kalkulatu da. Udalak azken urte hauetan tipo berdina mantendu du eta 2017 urterako ere tipo berdina izatea aurreikusten du. Abaltzisketako Udaleko tipoa %0,1915koa da eta 2017 urtean ere berdina izango da.

Beraz, jasotzen duzuen informazioan balioa katastrala eta tipoa ikusiko dituzue eta ondorioz, 2017 urtean izango duzuen kuota ere jakingo duzue.

Zalantzarik baduzue, lasai etorri Udaletxera eta argituko zaizue.

Abaltzisketan, 2016ko ekainaren 2an.

Udalak